

ARIKETAK

ADMINISTRAZIOKO
IDAZKIAK

1 Administrazioko idazki askok egitura jakin bat dute, aldaketa txiki batzuk salbu, behin eta berriro errepikatzen dena. Egitura horren ezaugarrien artean honako hauek aipatuko genituzke, besteak beste:

- Ez dute izenbururik; beraz, herritarrak mezu osoa irakurri behar du, idazkiaren edukiaz jabetuko bada.
- Gehienetan, zerbaiten berri ematen zaio herritarrari, eta azalpen horren osagarri, dagokion legearen edo dekretuaren erreferentzia osoa jasotzen da testuaren barruan. Euskaraz, lege-erreferentzia horiek mezu nagusiaren aurretik ematen dira, eta testua nabarmen iluntzen dute.
- Testuaren mamia esaldi bakarrean edo oso esaldi gutxitan ematen da. Hori horrela, ideiak pilatu egiten dira bata bestearen atzean, eta azkenean irakurleak ez daki non amaitzen den zati bat, eta non hasten den bestea.

Irakurri ondorengo testua. Berez, nahiko zuzena da; hala ere, hobetzen saiatuko gara.

Honen bidez, matrikula duen TURISMOA herri honetako kalean, egoera txarrean eta aspaldian utzita daukazula jakinarazten zaizu.

Hori dela eta, Arrietako Udaleko motoredun ibilgailuen zirkulazioa, bide segurtasuna eta trafiko urrapengatiko zigorrak erregulatzeko Orde-nantza Orokorraren 13.12 artikulua arabera, 72 ORDUKO epean zure ibilgailua dagoen lekutik ken dezazula agintzen dizut, epe hau ibilgailua jaso gabe bukatzen bada, Udaletxe honetako langileek erretiratu-ko dutela azalduz, zuk sortutako gastu guztiak, eta honi dagokion isuna ordaindu beharko dituzularik.

Molda ezazu testua ondorengo gomendioei jarraituz:

- Jarriozu izenburu bat.
- Lehen lerroaldean (Honen bidez...) aurreratu aditz nagusia.
- Kendu lege-erreferentzia lerroalde nagusitik, eta idatzi, oinohar modura, testuaren amaieran.
- Utzi bi ideiak lerroalde nagusian: lehenengoa, autoa kentzeko agindua eta epea; eta bigarrena, hori egin ezean izan daitezkeen ondorioak.

..... (izenburua)

..... (jakinarazpena)

..... (agindua eta ondorioak)

..... (lege-erreferentzia)

A R I K E T A K

- 2 Antzeko adibidea dakarkizugu oraingoan. Irakurri.

IRAGARKIA

Muebles Amaia-k Udal honetako Carlos Gardel kaleko 16.ean altzari erakusketa, fabrikazio eta biketarako Udal baimena eskatu du.

1961eko azaroaren 30eko iharduera Gogaikarri, Osasunkaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Arautegiko 30 artikulua indarrez, aurkeztu duen proiektua jendaurrean erakusgai jartzen da, nola edo hala kalteuak direla uste dutenek instalazio horren gainean Arkitektura eta Hirigintzako Udal Bulegoan (Errementari Kalea, 1-5) dagoen dokumentazioa aztertzeko, herritarrentzako zerbitzuaren ordutegi barruan eta aurkeztu ahal ditzaten behar bezala arazoituta egoki uste dituzten erreklamazio eta oharrak, HAMAR (10) astegunetako epearen barruan, Arrietako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean iragarki hauxe argitaratuta azaltzen den egunaren biharamunetik hasita.

Hona hemen eskema bat, lagungarri izango duzulakoan

..... (izenburu adierazgarria)

Muebles Amaia-k baimena eskatu dio

..... biltzeko. (jakinarazpena)

..... (dokumentazioa aztertzeko aukera)

..... (erreklamazioak)

..... (lege-erreferentzia)

- 3 Hona hemen hirugarren adibide bat. Oraingo honetan ez duzu laguntzarik izango. Ez beldurrik izan, eta jolastu testuarekin: aldatu egiturak, mugitu hitzak; beti ere, esanahaia aldatu gabe. Aupa!

IRAGARKIA

Haran honetako Hirigintza Antolaketaren Plangintza Orokorreko Hirigintza Arloko Arautegiko industria eta ihardueren zabalketa eta funtzionamenduari buruzko 1.3.24. artikuluan ipinitakoaren ondorioetarako ARANTXA PÉREZ LASARTE andreak, Udalerri honetako Zubiaurre kaleko 25-B zenbakian ANTZERKI ZENTRUA ipintzeko baimena eskatu duela jakinarazten da.

Iragarki hau, Udaletxe honetako iragarki taulan ipini eta biharamunetik kontatzen hasita, HAMAR (10) astegunetako epe barruan, egoki uste diren oharrak Alkatetza-Lehendakaritza honi zuzendutako idatziz azaldu ahal izateko argitara ematen da.

.....
.....
.....
.....
.....

A R I K E T A K

- 4.- Berrito ere gauza bera, baina gogoratu urrezko legea: lehen irakurraldian ulertzen ez dena ez da egokia eta aldatu egin behar da. Baietz guk baino hobeto egin zeuk!

EDIKTUA

Ondoren zerrendatzen diren Zigor Prozeduraren jakinarazpena interesatuei egiten inolako ondoriorik gabe ahalegindu ondoren, sinatzen ez zekitelako edota ez zutelako sinatu nahi, iragarki honen bidez egingo da Administrazio Ihardunbide Legearen 59. artikulua xedatzen duenaren arabera, 15 eguneko epean komenigarri iritzitako guztia alegatu ahal izango dutela ohartaraziz berroztertzeko idatzi bitartez Udal honetako Alkatearen aurrean.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

5. Eta orain, bukatzeko, zientzi fikzio pixka bat. Boletineko testuak baino gauza serioagorik eta finkatuagorik ez dago. Baina jolasean ari garenez, ikus dezagun orain arte egindakoa horrelako testuetan ere egiterik dagoen ala ez (barka bezate hango itzultzaileek, nahikoa lan baitute egunero-egunero pilatzen zaizkien gaztelaniazko idazki itsusiak euskaratzen). Adibide honetan, bada laguntzarik.

212/1997 DEKRETUA, irailaren 10ekoa, Euskal Autonomi Elkarteko 1998rako Lan Egutegia onartzeko dena.

Euskal Autonomi Elkarteko Autonomi Estatutuaren 12. atalak eta Langileen Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege-Dekretuko 37. atalak ezartzen dutenaren arabera, Jauriaritza honen eskumena da Euskal Autonomi Elkartearen 1998an izango diren jai eta lan egunen egutegia zehaztea, beti ere, urtean 14 jai egunetako muga errespetatuz.

DEKRETUA

Zenbakia:

Eguna:

Gaia:

.....

..... (Zeinek zehazten du egutegia?

Zenbat jai egun dira, gehienez ere?)

.....

..... (Zein legetan jasotzen da hori guztiori?)

S O L U Z I O A K

1

AUTOA KENTZEKO ABISUA

Honen bidez jakinarazten dizut zure autoa (..... matrikuladuna) herri honetako kalean dagoela, egoera txarrean eta aspaldian utzita.

Hori dela eta, agintzen dizut 72 ORDUKO epean zure autoa hortik kentzeko¹. Epea igarota ibilgailua bertan baldin badago, udal honetako langileek erretiratuko dute, eta horrek sortutako gastu guztiak gehi dagokion isuna ordaindu beharko dituzu.

¹ Arrietako Udaleko motoredun ibilgailuen zirkulazioa, bide segurtasuna eta trafikoa urrpegatiko zigorrak erregulatzen dituen Ordenantza Ordeanaren 13.12 artikulua.

2

MUEBLES AMAIA-REN ESKABIDEA

Muebles Amaia-k baimena eskatu dio Udalari, Carlos Gardel kaleko 16.ean altzariak erakusteko, fabrikatzeko eta biltzeko.

Hortaz, enpresa horrek aurkeztu duen proiektua jendaurrean jartzen dugu; eta baten batek uste badu nolabaiteko kaltea jasan duela, instalazio horren gainean dagoen dokumentazioa azter dezake Arkitektura eta Hirigintzako Udal Bulegoan (Errementari Kalea, 1-5), herritarrentzako zerbitzurako ordutegian.

Era berean, kaltetuak direla uste duten horiek HAMAR (10) astegun izango dituzte egoki irizitako erreklamazioak eta oharra behar bezala arrazoituta aurkezteko¹, Arrietako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

¹ 1961eko azaroaren 30eko Iharduera Gogaitarri, Osasunikaltz, Kaltegarri eta Arriksutuaren Arautegiko 30 artikulua.

3

ANTZERKI ZENTRURAKO BAIMENA

Honen bidez jakinarazten dugu ARANTXA PÉREZ LASARTE andreak baimena eskatu duela udalerrri honetako Zubiaurre kaleko 25-B zenbakian ANTZERKI ZENTRUA ipintzeko¹.

Iragarki hau udallexe honetako iragarki taulan ipini eta biharamunetik kontatzen hasita, HAMAR (10) astegun izango dira egoki irizitako oharra Alkatetza-Lehendakaritza idatziz aurkezteko.

¹ Horan honetako Hirigintza Antolatzaileen Plangintza Ordeareko Hirigintza Arloko Arautegia industria eta ihardueren zabalaketa eta funtzionamenduari buruzko 1.3.24. artikulua.

4

ZIGOR PROZEDURARI BURUZKO EDIKTUA

Ondoren zerrendatzen diren herritarrei Zigor Prozeduraren jakinarazpena egin zitzaion, baina jakinarazpenak ez zuen inolako ondorioz izan, herritar horiek ez zekitelako sinatzen edota ez zutelako sinatu nahi. Beraz, ediktu honen bidez zigor prozedurari ekiten zaio¹, eta interesatuei ohartarazten zaie 15 egun dituztela berraztertzeko idazki baten bitartez egoki irizitako guztia udal honetako alkateari alegatzeko.

¹ Administrazio Ihardurbide Legearen 59. artikulua.

5

DEKRETUA

Zenbakia: 333/1997

Eguna: 1997-11-10

Goia: Euskal Autonomi Elkartean 1998rako lan egutegia onartzea

Jaurlaritzari dagokio Euskal Autonomi Elkartean 1998an izango diren jai eta lan egunen egutegia zehaztea¹; beti ere, kontuan izanik jai egun horiek, gehienez ere, 14 izan daitezkeela.

¹ Euskal Autonomi Elkarteko Autonomi Estatutuaren 12. atala, eta Langileen Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege-Dekretuko 37. atala.